



AKELARRE - N. Basterretxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarriz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

# Doitua

2000ko ABENDUA 28. zkia.  
125 pzta.

Lege Gordailua: BI-85-98

**Durangoko Azoka**

**AEKren  
jardun oparoa**

**Iñaki Hervada poeta**

**"Kalean"  
kale hezitzaileak**

**Iker Martínez**

**"Euskararen aurkako  
erasoei salaketaz eta  
lanari eutsiaz  
eman behar diegu  
aurpegi"**







BILBAO  
VISTA DESDE MIRAVILLA

SSI HAUSER Y MENET.-MADRID

Argazkia: Luis Amann eta Román Alonsok paratutako "Nire Bilbao maitia" liburutik hartu dogu.

## Zabalbidetik gora, Bilbotik Begoñara

Erretratu zahar honen eskutik Begoñako bista zabal bateaz gozatuko gara oraingoan. Hortxe Zabalbide, zabalera doian bidea, San Anton ingurutik Artagan muino ganera zelan igoten dan. Argazkian San Antonetik gora gaur egun Solokoetxe auzoa daneko etxeak ikus leikez.

Gorago, harro eta ikusgarri, Begoñako eleiza, aurrean zugaztia dauala. Eta atzerago, soloak eta larreak, estartak eta baserriak, nekazari herri baten irudia.

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur Elkartea  
**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Telefonoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega  
**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Joana Martínez,  
Joana Etxebarria,  
Irene Berro,  
Iratxe Ruiz,  
Leire Altamira,  
Erdoitza Martínez,  
Unai Cuevas  
**ARGAZKIAK:**  
Inigo Azkona eta



Xabier Herrera  
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Inaki Berastegi.

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia,  
Itxaso Perez,  
Alberto Ugarte,  
Inaki Gaminde,  
Igor M. de Vidales,  
Santutxuko Bertso Eskola,

Igor Zorrozu,  
Inaki Aurrekoetxea,  
Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoe-  
txea.

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98  
**ALE KOPURUA:**  
1.000



▶ Betikoak .....	.2	▶ Inkesta .....	.19
▶ Iritzia .....	.4	▶ Mahatsberriak .....	.20
▶ AEKren jardun oparoa .....	.5	▶ Hezkuntza .....	.24
▶ Begoña eta Euskerea .....	.8	▶ Kirolak .....	.26
▶ Durangoko Azoka .....	.10	▶ Mendi Ibilbidea .....	.27
▶ Taldea: Klean .....	.12	▶ Kultura: Inaki Hervada .....	.28
▶ Bakarka: Iker Martínez. de Lagos ..	.15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	.30

Hau milenidxoko azkenengo Berton ixengo da, (edo milenidxoko lehenengoa, segun etzera noz ailegaten dan). Ta milenidxoa akabaten dala, eritxia dekot zarata gitxi egin dauriela milenidxoan kontuagaz. Pentsaten neuen baten bat etorri bier jakule mila urtien pasau dan guztidxe kontaten. Ez ba, emoten dau hamen jentie geidxago dagoela aurrerantza begire atzera baino. Ta holan, batzuek dedikaten direz kalien bier egiten bidxer jentie drogiek jodidute ibili ez daitten, ta beste batzuek bier egitten daurie laster baten hamen gure ingeruen gero ta jente geidxagok euskerie jakin deidxen ta euskeraz geidxago egin daitten.

Ta beste batzuek bere ahaleginien dabilteze ba hemen gero ta modernoago ixen gaittezen, ta hamen denok era baten berba ta pentsau egin daigun, ze holan gauzek fazilago ixeten direz, ta trunkilago bixiko gara danok, ta ez dogu diskutiduko ta ez gara hasarratuko, ta danak pozik. Ta horretarako, ba.., berba diferente egitten daurienak ta entenditen ez jakienak kartzelan sartu bier ba direz, ba...., sartu!

Iguel hau bere milenidxoko azkenengo Matso-  
rrianoa ixango da, ze gauzek holan segidu ezkeru, neu sartuko naurie barruen, txarto eskribiduteagaittik.

Firmaute: : Aliaselmachorri

# IRITZIA

## BERTON ALDIZKARIAK AEKREKIN BAT

### Kaixo AEKko lagunok!

**BERTON** herri aldizkari euskaldunaren izenean lerrotxook bialtzen dizkizuegu une larriotan geure elkartasun osoa zuen ondoan senti dezazuen. Aski da! esateko tenorea aspaldikoa da gurean baina oraingoan, euskararen aurkako erasoak gero eta ugariagoak diren egunotan, geure hizkuntza eta geure herria gero eta gordinago jipoitzen dituzten garai hauetan ezinbestekoa da ahotsa altxatzea eta etsaiari behar bezala erantzutea.

**AEK**ren kontrako erasoak, euskararen aurkako oldar guztiak legez, gure kontrako sentitzen dugu euskaltzaleok. Eta horren

aurrean ezin isilik egon. Lehenengo eta behin, ofentsiba honen bidegabekeria ozen salatu beharra dago. Eta gero, euskararen desagerpena helburu nagusitzat jotzen duten epaile, gobernu, komunikabide eta enparauen aurrean, **AEK**k berak dioen legez, geure modura erantzun: euskaraz jardunaz eta euskararen alde are tinkoago lan eginaz. Bide hori elkarrekin jorratuko dugu.

Har ezazue gure elkartasunik beroena. Zeozertan laguntzerik balego esatea besterik ez daukazue.

**BERTON herri aldizkari euskalduna.**  
**Bilbao, 2000ko abenduaren 5.**

**Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

## hartu berton etxean!!!

**Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo**

**Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.**

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_

*Sinadura*



## AEKREN JARDUN OPAROA

MAHATSERRIKO IKASLE ETA IRAKASLE OHIAK, ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTZE KOORDINADORAREN LANAREN EMAITZA

AEK izan da azken urteotan, areago azken asteotan, euskararen etsaien misil astunen jomugetarik bat. Espainiako Barne Ministerioaren eta epaile boteretsu baten diskurtsoaren arabera, koordinadora euskaltzalea ETaren adar bat baino ez da, PP eta UA lako alderdiek publikoki ETaren adar politikotzat jo duten artean. Geuk AEKtik igaro diren ikasle ohi batzuei itaundu diegu, ea eurek ezagutu dutena eta Espainiako erakunde ofizialek diotena bat ote datozen.

**Testua: Hektor Ortega**  
**Argazkiak: Xabi Herrera**

**Puri Chasco** AEKn hasi zenean, koordinadorak "ez zeukan oraindik izen hori. Duela 34 urte hasi ginen Santutxun herri honek mantendu duen berezitasun baten eskutik: auzolana. Auzolana baitzen euskaldunek euskara irakastea beste batzuek ikas zezaten". Hasiera oso apala izan zen, garai hartako baldintza latzetan bestelakorik ezinezkoa zelako. "Gutxi batzuk hasi ginen, bi edo hiru talde bakarrik. Geu lagun baten etxean elkartzen ginen, berak ezin zuelako mugitu. Hortik Karmelora aldatu ginen", gogorarazten du. Gutxi ziren hasieran baina "apurka apurka hasi ginen hazten". Karmeloko lokaletako garai heroikoek etsai

gogorrei eman behar izan zieten aurpegi, eta euren artean hotza ez zen makalena. "Orduko hotza -argitzen du Puri Chasco- gure asmoek eta gogoek berotzen zuten". Hala ere, errezeta hori nahikoa ez bazen ikasleek etxetik tostadorak eramaten zituzten bertan birziklaia trebe bati esker berogailu txiki lez erabiltzeko gero.

### IKASLEAK IRAKASLE

Urteak aurrera joan ahala gauzak aldatzen ziren. Puri Chasco euskaldundu eta gero irakasle gisa hasi zen. Berea ez da kasu bakarra. Asko dira ikasle ibili ondoren AEKn bertan irakasteari ekin diotenak. "Orain dela lau urtera arte egon naiz hor. Eta oraindik AEKkide sentitzen naiz", ihardesten du. Gaur, urteek ematen dituzten perspektibatik, Puri Chasco ez du dudarik. "Nire bizitzaren esperientzian oso aberasgarria izan da. Ez bakarrik euskaldun bilakatu garelako, ez; bizitza eskola ere izan da. Niretzat AEK herri unibertsitatea izan da". Santutxuko Karmeloko lokalak **Julio Ibarra**k ere ezagutu zituen, urte mordo bat beranduago izan bazen ere. ETBko kazetari mahatsorri hau gau eskolan hasi zen euskara ikasten "duela hamabost bat urte". Gure hizkuntza ez zitzaion guztiz arrotz, amaren familia euskalduna duelako, "baina neuk ez nekien ia ezer. Karmelotik Lizardi euskaltegira joan nintzen eta gero EGaren prestakuntza Azkuen egin nuen. Beti AEKn", argitzen du.





Santutxun AEKren alde abenduan egindako konzentrazio bat.

Santutxun zein Zazpi Kaleetan, esperientzia "oso ona izan zen. Beste giro bat zegoen, ez hain akademikoa. Baina ikasi, ikasi egiten zen", azaltzen du. Orduan bereganatu zuen hizkuntzaz sarritan dihardu geroztik, "kazetari gisa beti giro euskaldunean mugitu naizelako". Julio Ibarren iritziz, bada aldea duela hamabost urte eta orainaren artean. "Orain jende asko lanagaitik doa euskara ikastera, gaur egun eskatu egiten delako. Duela hamar edo hamabost urte euskara ikastera joaten ginen euskaldun sentitzen ginelako eta bilbotar eta Santutxukoa bazara derrigorrez euskaraz jakin behar duzula pentsatzen genuelako".

Apur bat beranduago hasi zen AEKn **Igor Martin de Vidales**. 1989 eta 1992 urte bitartean aritu zen ikasle lehenengo bere auzoan, Otxarkoagan, Santutxun beranduago eta barnetegietan azkenean. Euskaldundu eta gero, Puri Chasco eta beste asko lez, irakasle hasi zen AEKn bertan Iralan eta San Adrianen. Euskal Filologia ikasi ostean irakasle gisa dihardu orain ikastetxe batean. Euskararen gaineko ikerkuntzetan murgilduta dabil eta BERTO-Neko kolaboratzailea da.

**EUSKAL MUNDUA**

"Hainbat urtez eskolan A erudian ikasten egon eta gero-gogoan du Igor Martin de Vidalesek- AEKn sartzea oso esperientzia polita izan zen. Neuk beti maite izan dut euskara baina eskolan ezinezkoa zen ikastea. AEKn, oso era errezean ikasteko eta euskal giroan sartzeko bidea eman ziguten".

Ikasle zein irakasle eskarmentua aintzat hartuta, AEKren eraginkortasuna azpimarratzen du. "Ez da bakarrik arbela

eta aditzak. AEKren bidez euskal kulturaren atea zabalitzen zaio ikasleari, hizkuntza ikasi ez ezik erabiltzeko aukera ematen zaio. AEKk euskal munduan murgiltzen zaitu", nabarmentzen du Igor Martin de Vidalesek.

Aurten utzi behar izan dio euskara ikasteari Sonia Charcán kazetariak. Otxarkoagako alaba hau oso ezagun bihurtu zen 1997an urte hartako Aste Nagusiko txupinera izan baitzen. Gaur egun Radio Euskadiko programazio burua da eta lana izan da, hain zuzen, azken hiru urteotan Pernet kaleko lokaletan egindako esfortzuari segidarik eman ezinaren arrazoia.

"Pena handiz utzi nuen. AEKn oso giro ona zegoen eta oso ondo pasatu nuen irteera, jaia eta abarrekin", dio Sonia Charcánek. Baina dena ez zen giroa. "Aurretik HABEn egon nintzen eta han gramatika asko ikasten zen. AEKn ere bai, baina gainera hizketan hasteko lotsa galtzea oso erraza zen", aitortzen du.

Euskal eskolak lagata ere, **Sonia Charcánek** ez du euskara bazterrean utzi. "Lagun euskaldunekin -dinosku-euskaraz egiten dut. Baita hemen ere, lanean, Euskadi Irratiko lankideekin".

Eurak bezala, milaka dira azken 35 urteotan AEKn euskaldundu diren mahatsorriak. Garai batean Otxarkoaga, Uribarri eta Zurbaranen eskolak ematen bazituen ere, gaur egun AEK gurean Arbide eta Aita Pernet kaleetako lokalean baino ez dago. Hor bostehunen bat ikaslek jo ta ke dihardute egunokaz euskaraz bete-betean jabetzeko ahaleginean. Puri Chascok berak dioen legez, "azken finean AEK herri eskola sortzaile eta garrantzitsua da. Nori esker? Ikasle, irakasle, laguntzaile, ... hitz batez esanda herria, herriarena da AEK".

# AEKREN AURKAKO ERASOAZ ZER IRITZI?

**Puri Chasco:**

Atzo hartu nuen etxean Algortako trinitarioen egutegia eta honela zioen erdaraz: "Una cosa es lo legal y otra lo justo, porque no es lo mismo legalidad que justicia". Horixe bera gertatzen da gaur egun AEKren auzian. Lehenengo da bidezkoa eta gero legezkoa.

**Sonia Charcán:**

Euskaraz jakin ez dugun hainbat pertsona helduentzat lan bikaina egiten diharduen AEKren kontra horrelako eraso gordinak jotzea lotsagarria da. Madriletik asmatutako kanpaina hutsak dira. Ni AEKk asko lagundu nau eta neure sostengu osoa dauka.


**Julio Ibarra:**

AEKren lana oso inportante eta baliagarria da. Ni neu, beste asko bezala, adibide bat naiz, hor euskaldundu naizelako. Oso argi dago erasoak ez duela zentzurik, ez hankarik ez bururik. Gaur [abendua 15] AEKko arduradun batzuk Madrilerara epaile aurrera deklaratzera joan dira eta fiskala ez da azaldu. Akusatzailea ez da agertu. Begi bistakoa da.

**Igor Martin de Vidales:**

Herri txikia izateagaitik gureak beti jasan ditu inguruko handien erasoak. Hor dago "El libro negro del euskara", horrelakoen adierazle. Oraingoa ez da gauza berria, lehendik datorenen hariari segida ematen baitio. Garzón Franco edo Pierre Lancre bezalako diktadore eta inkisidoreekin pareka genezake. Bestalde, oraingoa nabarmendu behar dugu urduri dardela Euskal Herrian jendea euskararen alde tinko ari delako. Horregaitik erasoak ez da AEKren auka bakarrik. Ikastolak, D eredu, eta oro har euskara eta euskal mundua zigortu nahi dute.

Sonia Charcán



Igor Martín de Vidales



Julio Ibarra



"Nuevo Ensanche de Begoña" deituko zan poligonoa eiteko plana zabaldu zan, 50.eko hamarkada inguruan, Bilbo zabaltzeko asmoz

# Begoña eta Euskereia

Joseba Etxebarria "Txabola"

## MATSORRI HERRIKO KONTUAK

Bazan behin eskualde txiki, polita ta berdea, berjela zer zan bera ba. Eukin danetarik eukan, eguzkia gurebeste ta gehiago be, hegoaldeari begira egoan ta. Ura parra parra, ta marmarra be, Artxandako berezko ubidea bera zan eta. Hau dala eta labadero piloa egoan, uraz ondo serbidute, eta oso popularrak berriz, degustazinoak asmatzeko egoazan ta elkartokiak eurak ziran, aterpe ta freskurie udan, neguan ...tira, baina beti jende asko.

Lurra potentea, guztiz, goiko Ganguren,... tontoretatik jausite ta euriak ekarritakoa, goxoa, aberatsa ta apatx apatx eginda. Hau dala eta fruta eta berdura klase asko emon egiten eban, emon eta zelan berriz, platanoak eta aguakaterik ez, oindiñoko negutegi kontua etortzeko zan eta, bestela ...maiuki, kerexa, melokotoi, paraguay, okaran, sagar ta madari klase guztiak,...



Narbide baserria (Txabola), Txurdinagako obrak hasita egozen orduko eta atzean Otxarkoagako etxe barriak ikusten dira

### BENDEJEIA

Honek letxuak, perejilak, azelgak frutak ta abarrakaz bete eiten ziren zestoak, bete ta, tapa gora!, einde Bilboko Erriberako merkatura bajatzeko "bendejeia" deitzen zana, berton dana saldu ta harek diruak berton be itxi okola ta odolosteak edo ...erosite, harek generoak hartu ta Artagan aldapa gogo-

rra igo ein bier izaten zeurien andratxoak, bakoitzak bere ganadua (etxe barrukoa zein kortakoa) atendidu eiteko: bazkari prestau, belarra batu, soloko zeozer ein ...andratxoentzako entretenimendue. Udagoi sasoiari, Domusantu egunerako Gabonetako paga extra kobrau eiten zan, Plaza Barriko arkupetan kresta gallo

rua dedikaturik izatea. Lan honetan ibili ziren batzuk Aingeru Epaltza, Pello Zabala, Joan Mari Irigoien, eta Ramon Saizarbitoria izan ziren, besteak beste. Ohitura hau nahiko berria da, azken aldian oso modan jarri dena.

Gainera, idazleen presentziaz gain oso arrunta da kantari eta ilustratzaileak ikustea baita ere. Karparen barnean euskal kulturarekin lotura estua duten aurpegiekin topo egitea oso normala izaten da. BERTON ere Durangon egon zen, azkenaldion legez Topagunearen standean, Euskal Herriko gainerako herri aldizkari euskaldunen ondoan. Azaroko alea bero bero ailega zen, labetik atera berria, eta publikoaren harrera samurra lortu zuen.

### LIBURU ETA DISKARIK SALDUENAK

Literatura arloan liburu batzuk beste batzuen gainera nabarmendu dira eta honako hauek izan dira salduenak: Juan Mari Irigoienen "Lur bat haratago", Ramon Saizarbitoriaren "Gorde nazazu lurpean" eta Jon Arretxeren "Zazpi Kolore". Baina hauek gain oso harrera ona izan dute baita ere, Pello Zabalaren "Naturaren mintzoa" eta Juan Luis Zabalen "Agur Euzkadi".

Musikaren inguruan, aldiz, arrakasta handia eduki dute Mikel Urdangarinen "Espilue" (Durangoko San Agustin aretoan eskeinu zuen kontzerturako sarrerak egun bi lehenago agortu ziren), Fermin Muguruzaren "FM 99.00 Dub Manifest", Itoizen "1978-1988" eta Sen taldearen "Sen". Ederto saldu dira baita ere, Idi Bihotz, Xabier Euzkitzen edota Anariren lanak. Saldu diren liburu eta disken %80 euskarazkoa izan da eta nobedadeen artean %75a euskarazko produktuak izan dira.

Karpan musika kontzertuak antolatuko dira. Azokan musika ekitaldiak utzi zuten hutsunea betetzeko aurten I. Durangoko Rock Azoka ospatu zen astebete beranduago. Bertan, euskal talde desberdinak hartu zuten parte eta honetarako liburu eta diskoentzako erabilitako karpa bera erabili da. Honako talde hauek bildu ziren; Juan Carlos Perez, Bat Biten, Harlatz, Lisabo, Buitraker, Bide Ertzean, Sen, Idi Bihotz, Eraso!, Ekon eta Txapelpunk.

### ALEMANIA & EUSKAL HERRIA

Azokako ardatz nagusia Euskal Herriaren eta Alemaniaren artean egon den hartu emana izan da. Hau dela eta, ekitaldien artean, Klaus Niebeli egindako omenaldia hunkigarria nabarmendu behar da. Alemaniaren semeak, Ingo Niebel, eta Joxe Azurmendik bi herrialdeen arteko harremani buruz mintzatu ziren. Euskal pentsala-



riak besteak beste Alemanian bizi izandakoaren berri eman zuen. Bestalde, Ingok honako hau kontatu zuen: Euskal Herriarekin izan zuen lehenengo kontaktua, bere aitak ohepean gordetzen zuen argazki bilduma ikustean izan zela. Semea bederatzi urte zituelarik etorri zen lehendabizi Gernikara. Egund, herri bizkaitar honetako neska batekin ezkondu dago.

**GOIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

Telefonoa:  
(94) 669 32 79  
Mugikorra:  
908- 45 16 22



# KALEAN ELKARTEA, OTXARKOAGAN DROGODEPENDENTZIARI AURRE EGINEZ

Drogen gaineko informazioa zabaldu eta ume eta gaztetxoekin kale heziketa egiten du talde honek

Testua: Erdoitza Martinez



*Oraingo honetan gizarte-lanetan diharduen talde batengana jo dugu, zer nolako lana egiten duten jakiteko. Euren lana nahiko interesantea eta garrantzitsua dela argi ikusiko duzue hurrengo lerrook irakurri ostean. Aurrera ba!!!*

**DAYTON**  
Reagge-festa  
taberna  
Santutxuko poteo gunean




**ekilore**  
Iturriaga, 92 Santutxu

**BASTERTXU**



**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza



**KALEAN**



**DROGAMENPEKOTASUN ETA SUSTAPEN AMANKOMUNERAKO ARGIBIDE GUNEA**

Otxarkoagako auzo-etxean gaude  
ORDUTEGIA

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan 9:15 tik 1:15tara.
- Astearte eta ostegunetan 3:15 tik 7:15tara.

Tfno. zbkia.: 4129856

*"Kalean" Otxarkoagan sortu zen drogaren arazoaren inguruan erantzun bat emateko asmoz.*

1980ean, Otxarkoaga auzoa drogaren arazoa zela eta nahiko zigortuta zegoen. Honen aurrean, arazo hau salatu beharra zegoela ikusi zuten auzoan bertan eta, nola ez, salatu ez eze neurriak hartu. Horrela, "Kalean Elkar-tea" sortu zen, hain zuzen ere, drogamenpekotasunaren prebentzio eta Otxarkoaga auzo-aren sustapen lanetan diharduen taldea. Bere jardunean, Gasteizko Gobernuaren zein Bilboko Udalaren sostengu ekonomikoaz baliatzen dira.

Otxarkoagako talde honen lanean proiektu ezberdinak zuzentzen dituzte, hauen artean bi direlarik garrantzitsuenak: adin txikikoei zuzendutako suspertze ekintzak eta droga-menpekotasunaren inguruan informazioa zabaltzea.

**UMEEKIN**  
Lehenengo proiektuak umeei denbora-pasa ezberdinak eskaintzea du helburu. Horretara-



EQUIPO DE PREVENCIÓN COMUNITARIA

# KALEAN

AUZO PREBENTZIO TALDEA

*Elkarte hau aurrera eramateko hamar pertsona daude jo ta ke lanean*

ko ekitaldi batzuk antolatzen dute: tailerrak, jolasak kalean zein lokaletan, irteerak, kirola eta txangoak,... Harrera ona izan da. Egun talde finko bat dute honako proiektu hau aurrera eramateko. Taldea hogeita hamar bat umek osatzen dute, 6 eta 14 urte bitartekoak. Lan hau oso garrantzitsua da, gaur egun, gazteen droga arazoa pil-pilean baitago, "alarma-soziala" berak argiro erakusten duen legez.

Bigarren proiektua informazioa zabaltzea da, eta hau burutzeko hiru talde izango dute kontutan. Lehenengoa gizarte osoa izango da; bigarrena, "arrisku-objektuak" osatzen dutena, hots, euren giza-, famili- eta lan-egoeren ondorioz drogen mundura sartzeko probabilitate handiago dutenak; eta hirugarrena, eta azkena, droga kontsumitzaileak. Proiektu hau aurrera eramateko honako lau ekintzetan oinarritzen dira:

- Argibidea eta prestakuntza: Osasun, drogamenpekotasun, hezkuntza edota auzoaren argibidea ematen dute. Gainera, hezitzaileei zuzendutako ikastaroak eta jardunaldiak antolatzen dituzte.
- Kontseiluak ematen zaizkie toxikomaniekin erlazionatuta dauden pertsoneri, baina ez da inolako tratamendua ematen. Hau hirugarren taldea

osatzen dutenei zuzendurikoa izango da.

- Auzoan partehartzea. Sustapen amankomuneko taldea bat izanik "auzoan bertan egon nahi dugu; kontua ez da jendea gure lantokira etortzea baizik eta gu kale-ira irtetearena", dinoskue. Hortik dator elkartearen izena: Kalean Elkartea.
- Sustapena. Bizi-aztura onak suspertzeko ekintzak antolatu eta burutzen dituzte, batik bat adin txikikoei zuzenduta: osasunaren astea edota droga abusuaren aurkako nazioarteko eguna ospatzea,... Gainera, hiruhilabetekari bat ateratzen dute, "Karrika", dohain banatzeko gero. Elkarte hau aurrera eramateko hamar pertsona daude jo ta ke lanean, hauek guztiak giza-hezitzaileak dira: bik diru-saria jasotzen dute; lauk borondatez egiten dute lan; eta beste bi praktike-tan dabilta. Hauekin kontaktuan jarri nahi izanez gero Otxarkoagako auzo-etxean daude; eta honako hauek dira euren telefonoa eta ordutegia:

**Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 9:30tik 13:00etara**  
**Astearte eta ostegunetan: 15:30tik 19:00etara**  
**TFNO. ZBKIA.: 944129856**

Lanbroa


MESÓN  
URETXE

Santutxuko poteo gunean

PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!

SAAK

e  
l  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a



**Iker Martínez**  
*"Euskararen aurkako erasoei salaketaz eta lanari eutsiaz eman behar diegu aurpegi"*

Testua: Irene Berro Urrizelki  
 Argazkiak: Iñigo Azkona

*Iker Martínez de Lagos gaztea izan arren urteak daramatza Santutxu inguruan euskararen aldeko jardunean. Azkenaldion gure hizkuntzaren aldeko konpromisoak Asapala euskara elkartera eraman du eta, hortik, euskara elkarte eta herri komunikabideak elkartzen dituen "Topagune"ra. Gaur egun "Topagunean" dihardu lanean liberatu gisa, Euskal Herriko hainbat elkarte eta komunikabideen bideak errazteko asmoz*





### Santutxuko Asapala euskara elkarteko kide zarela badakigu baina noiztik zabilta bertan?

Bai, bazkideetza kanpaina egin zenean bertan egon nintzen bi edo hiru hilabetez teknikari bezala pixka bat hori koordinatzen eta geroztik Asapalako Zuzendaritza Batzordeko kide naiz.

### Momentu hauetan zein da zure ardura Asapalan?

Normalean biltzen naizenetako bat naiz. Astero taldetxo bat biltzen gara, zuzendaritza batzordea eta batzorde horretan nire ardura gazteriarena da. Orduan, bueno, hor sortu den azkenengo istorioa Txatxibiriltz umeentzako aisialdi taldea da. Bazkideetza kanpainarekin hasi ginenean ikusi zen umeen inguruan zerbait egitea interesgarria izango litzatekeela, sektore hori indartu nahi genuen zeren ikusi genuen eskolan euskara ziurtatua zutela, gehienek behintzat, baina eskolatik kanpo ateratzean ez zekutelako gulerik euskaraz aritzeko. Beraz, umei

heltzea interesatzen zitzaigunez, hasteko aisialdi talde bat bururatu zitzaigun eta hori da Txatxibiriltz. Gero egon daitezke mila proiektu, atera daitezke mila gauza, baina momentuz aisialdi taldea. Orduan, lehengora bueltatuz, nire ardura zuzendaritza batzordean teoriarik gabea eta umeak izango litzateke. Teoria diot gero denak gaudelako dena.

### Zu Asapalan bazkideetza kanpaina geroztik zabilta lanean. Zer moduzko ondorioak izan zituen kanpaina horrek?

Bazkideetza igo, igo zen baina ez guk espero bezain beste. Hasiera batean ez genuen zenbakizko helbururik ipini baina egondako bazkideetza kopurua nik espero baino eskasagoa izan zen. Leku pila batetara jo genuen; erakundeetara, ikastola eta eskoletara eta erantzuna leku batzutan ona eta besteetan ez zen izan espero bezalako. Hala ere bazkideetza igo zela ziurta dezaket.

### Zer suposatzen du Asapala euskara elkarteko bazkide izateak?

Asapalako bazkide izatea elkarteko kide izatea da eta behar modura edo, urtean zehar ordaindu beharreko kuota dago. Bestalde urtean behin gutxienez bazkide guztiakin asanblada bat egiten da eta bertara joatea beharra ez izan arren interesgarria da hor gainera botu eskubidea dago.

Eskubide bat aldiz, egiten diren ekintzei buruzko informazio zuzena jasotzea izango litzateke. Bestalde antolatzen diren ekintzetan ordaindu beharko balitz bazkideek prezio berezia edukiko lukete.

### Zeintzuk izan daitezke antolatzen diren ekintzak esaterako?

Aurten muntatu ditugun gauza gehienak kulturaren arlokoak dira. Oso gauza interesgarriak ekarri dira baina ez dute izan behar bezalako erantzunik. Ander Lipusen antzerki emanaldi bat eskaini genuen, Xabier Amuriza ekarri genuen Lazkao Txiki-ren antologia bat egitera, "Zuhaitz gaineko txabola" ume eta gaztetxoentzat eta Petti abeslaria besteak beste. Askotan hemen kultur mugimendurik ez dagoela esaten da eta pena da gero horrelako gauzak egiten direnean erantzuna nahiko eskasak izaten da eta.

Esfortzu handia egiten dugu gainera dohainik eskaintzen ditugu eta gero bastante etsigarria da erantzunik ez gotea. Hala ere, guk horretan jarraitu dugu.

tuko dugu.

Santa Ageda abestera ere atera ginen auzotik Santutxuko Bertso Eskolakoekin batera. Taberna askotan abestu genuen eta janari trukea eta guzti egin genuen. Ondoren, afaritxo bat egin genuen.

### Asapalan lanean ibili ezezik Topagunean zabilta ere. Zelan definituko zenuke Topagunea BERTONeko irakurleentzat?

Topagunea euskara elkarteen federazio bat. Asapala esaterako Topaguneko bazkide da beste berrogeita hemeretzi euskara elkarteekin batera, guztira momentu honetan hirurogei daudelako. Honen barnean ere komunikabideak daude, herri telebistak, aldizkariak eta abar. BERTON ere hemen dago. Bestalde, gazte taldeak ere badaude, duela gutxi Santutxun sortu den Txatxibiriltz bezalakoak. Dena den, orokorrean izendatzeko euskara elkarteen federazio bezala egiten

dugu.

Ni orain Topagunean nago baina lanean, teknikari moduan.

### Topagunearen helburu nagusia zeintzuk dira?

Topagune 1996 urtearen bukaeran sortu zen. ikusi zen euskara elkarte pila zeudela funtzionamenduan baina bakoitza bere kabuz zebilela eta komunikazio gehiago egon zedin eta kohesio istorio bat moduan eta batera joateko istorio bezala sortu zen Topagune. Hainbat euskara elkarte batera joaten errepresentatibitate handiagoa duzu eta pixka bat hori lortzea, erre-presentatibitatea, izan daiteke helburu nagusia.

### Zeintzuk dira beraz Topagunek euskara elkartei eskaintzen dizkien abantailak?

Abantaila nagusia aipatutako errepresentatibitatea da, gero Topagune barnean Kultur Errota deiturikoa dago. Honek antzerkiak bezalako kultur ekintzak eskaintzen dizkie euskara elkartei, bestetik, komunikabideentzako zerbitzuak ere badaude baina nik, abantaila nagusia errepresentatibitatearen kontu hori dela uste dut.

### Topaguneak eta Kontseiluak ba al dute harremanik?

Bai. Kontseilua elkarte pilo batek osatzen dute eta Topagunea tartean dago. Kontseiluko Zuzendaritza Batzordean esaterako Topagunek ordezkari bat du. Harremana daukate zentzu horretan, nolabait parte hartzen dugula Kontseiluaren dinamikan.

### Euskara eta euskal kulturari erasoak gero eta ugariagoak dira azken bolada honetan. Zer duzu esateko zuk honen inguruan?

Nik uste dut honen aurrean bi aldetatik jo behar dugula. Alde batetik gertatutako eta gerta daitezkeen eraso guztiak salatu behar ditugu eta horien kontra egin nolabait, kalera ateratzen eta mota honetako dinamikan egiten baina bestetik nik uste dut erakundeetan gure bidea jarraitu behar dugula betiko moduan gure ekintzak egiten zeren azken batean hori da gehien izorratuko dituen. Gainera horrek sortzen du apurka-apurka dinamika bat, eta esan bezala horrek izorratzen ditu gehienbat. Ez da izorratzeko egiten dugun gauza bat baina...Beraz, nire ustez salaketa eta lana uztartu behar ditugu.

### Aipatu berri ditugun eraso hauek direla eta Topagunek nabaritu du zerbait?

Zorionez ez. Topagune bezala ez behintzat. Beno, gero badaude gauza puntualak, Gasteizko Geu elkarteak izan du erasoren bat, baita aldizkari batzuk ere subentzioen aldetik eta. Elkarte batzuk bai nabari izan dute zerbait baina Topagunek zuzenean ez du ezer nabaritu. Bueno, gu elkarlanean gaude proiektu batean Bizkaiko AEKekin, beraz, zuzenean ez bada zeharka bai nozitu ahal izan dugu zerbait.





**“ESKOLA ETA IKASTOLEN LANA EZ DA KALEAN ISLATZEN”**

**Mahatserrian nola ikusten duzu euskara, batez ere gazteen artean?**

Ni errealtate batetik nator. Asapala eta Topagunearen inguruan nabil lanean orain baina lehenago umeen inguruan egin izan dut lan, aurreko urtean desagertutako Mamurrak taldean hain zuzen ere. Nire erreflexioa beti izan da antzekoa eta lehen esan dudana, umeek eskoletan ziurtatua dute euskara. Ez guztiak baina behintzat ume kantitate pila bat D erduek mugitzen dituzte, bai Kirikiñon, bai Begoñazpin, bai Briñasen, bai Karmelon, Txurdinaga eskolan eta abar. Baina hori kalean ez da isladatzen. Eskola eta ikastoletan egiten den lan hori gero kalean ez da isladatzen eta nik beti izan dut arantza hori. Orduan beti egon gara (ni eta nirekin batera parte hartu dudana taldeetako kideak) oso enpeñatuta hori kalera eramaten. Igual ez dugu asmatu orain arte baina nik

uste dut ahalegin handiak egin behar direla esperantza umeengan baitago.

Gazteen artean Santutxun (Santutxun diot zeren beste auzoetako errealtateak ez ditut ezagutzen) euskararen aldetik behintzat errealtatea nahiko eskasa da. Ez da euskararik entzuten apenas eta ezagutza aldetik nik daturik ez dut baina jokatu nuke datu nahiko majuak daudela eta gero erabilpena oso urria da. Eta hor guztiok dugu errua, nik ere. Esan nahi dudana da ahalegin berezi bat egin beharko genukeela.

**Zuk enpresariales ikasi duzu. Zer egiten du enpresariales ikasitako batek euskalgintzan?**

Euskalgintzan ere kontuak eramango dituzten pertsonak behar dira. Gainera euskalgintzan denetarik behar da, ekonomilariak ea. Ni horrekin guztiz konbentzitua nago. Lanbide desberdinetako jendea behar da hor lanean.

**GALDERA LABURRAK**

- Liburu bat:** Ez daukat bat fijo.
- Abesti bat:** Ruper Ordorikaren edozein.
- Pertsonai bat:** Ez naiz mito zalea.
- Hizkuntza bat:** Ja, ja, euskara. Ingelesa ez dut esango.
- Juerga ala lasaitasuna:** Nahiko lasaia

- naiz, lasaitasuna.
- Herria edo hiria:** hiria
- Data bat:** gaurkoa.
- Izen bat:** Iker
- Gustuko jarduera bat:** irakurtzea eta lasai egotea.

**ZURE USTEZ, ZEIN DA GABONAK OSPATZEKO MODURIK ONENA?**

- AMAIA (SANTUTXU)**  
Familia eta lagunekin giro alaian.
- MAIA (SANTUTXU)**  
Ikasi gabe pasatu ahal izatea.
- JOANES (SANTUTXU)**  
Opariekin eta familiarekin ondo pasatzea.
- BEÑAT (SANTUTXU)**  
Lagunekin eta opari askorekin.
- MARIBEL (SANTUTXU)**  
Atzerrian nobioarekin, onena!
- MARI FE (SANTUTXU)**  
Familiarekin giro alai eta beroan.
- Bego (Santutxu)**  
Familiarekin bidai bat egitea leku eguzkitsu batera!
- ARKAITZ, (SANTUTXU)**  
Falta den eta maite duzun jendeaz oroitzu eta daudenekin ondo pasatuz.

A  
R  
K  
A  
K  
A



Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## ARTXANDAN HIRU GOLF ZELAI EGITEKO PROIEKTUA ARBUIATU DUTE URIBARRIKO AUZOEK

"Gure Etxea" auzo elkarteak Artxandako gailurrak eta inguruak herritar guztientzat zabalik nahi ditu

Azkenaldion plazara atera da Artxanda aldean hiru golf zelai egiteko proiektua. Sektore pribatuaren asmo horrek erantzunik ekarri du honez gero eta ez da aldekoa izan. Urribarriko "Gure Etxea" auzo elkarteak agiria kaleratu du golf zelai hauen kontra erabat azalduaz. Auzben ustetan, Artxandako gailur eta magalak ezin dira gorde gutxi batzuentzat. "Herritar guztientzat zabalik nahi ditugu aisialdirako eremu gisa ondo atundurik", diote.

Udagaien honetan sektore inmobiliarioko lagun multzo batek Artxanda inguruan hiru golf zelai egokitzeo egitama aurkeztu du Diputazioaren bulegoetan. Bultzatzaileon esanetan, golf zelai hauetatik bi bederatzizulokoak izango dira, bata umeei eskolak emateko eta bestea bazkideek bertan joka dezaten. Hirugarren zelaiak hamazortzi zulo eukiko ditu eta nazioarteko txapelketetarako egokituko ei da.

Golf zelaion bultzatzaileok bi arrazoi nagusi darabilte proiektuari babesa ematerakoan. Batetik, Bizkaiko golfzaleak hemendik kanpora joan behar dutela oltetan. Gainera, euren iritziz kirol hau ez da batere elitista, kanpotik pentsa litekeenaren kontra. Bestetik, Artxandako golf zelaiok egingo balira Bilboren eskaintza turistikoaren osagarria lirateke, "Estatu espainoleko golf zelaietako jokalarien %70 turista atzerritarrak dira eta". Kirola zabaldu eta turismoa bultzatu, beraz.

### AUZOAK GUZTIZ KONTRAN

Urribarriko "Gure Etxea" auzo elkarteak proiektu honen kontrako iritzia agertu du. Auzoen ustez, "golf zelaiak lur eremu zabalak eskatzen dituzte gutxi batzuen onurarako gordetzeko gero". Golf zelaiak egitekotan, "derrigorrez Artxanda ganeko aldea okupatuko dute eta esparru hori gaur egun milaka eta milaka herritarren gozameneko dago".

Urribarriko auzoek, beraz, Artxandaren pribatizazio ahalegin hau salatu dute, eremu zabal horiek herritar guztientzat edegita nahi dutelako. "Esparru publikoak dirua sobran eta duintasuna faltan duten gutxi batzuei saltzearen kontra gaude, erabat", diote.

"Gure Etxea" k, gainera, golf zelaiak infraestruturaz handiak behar dituztela gogorarazi du. Aparkaleku zabalak eskatzen dituzte, hotelak ekarri ohi dituzte aldean eta ura barra barra kontsumitzen dute belardiak zein gainerako esparruak behar bezala mantendu ahal izateko.

Arrazoi guzti hauek kontutan hartuta, "Gure Etxea" k proiektu hauei ezetz esateko eskatu dio Diputazioari.

### ZELAIK NON

Proiektuaren bultzatzaileek jendaurrean argitu ez badute ere, bada hiru golf zelaien ustezko lekuen gaineko susmorik. Batzuen esanetan, eskolak emateko golf zelaiak Gangurenako frontoien inguruan jarri nahi dute. Bazkideena Aixerrotaren zelaietan eta maila handiko txapelketenak San Rokeren ermitaren ondoko larreetan.

### GOLF ZELAIEN GAINKO DATUAK

- \*Golf zelaietako zulo bakoitzak hektarea bat lur eskatzen du.
- \*Bizkaian 6.000 lagun dira golf jokalariek federatuak.
- \*Bizkaian bi golf zelai dago -Galea eta Laukariz-. Badira zelai gehiago egiteko proiektu ugari.
- \*Lur mugimendu handiak egin ohi dira urmelak, hareatzak, harrizko bideak, belardi bereziak, muinoak eta antzekoak atontzeko.
- \*Golf zelaien operazioen atzetik bankuak egon ohi dira: BSCH, BBV eta Banco Guipuzcoano gure inguruan.
- \*Golf zelaietako bazkide izateko eta bertan jokatzeko diru asko eskatu ohi da.

### AUZOEK NAHI DUTENA ARTXANDAN

- \*Aixerrotatik Gangurenako frontoietara oinez joateko ibilbide egokia.
- \*Lorategi botanikoa.
- \*Kirol instalazio berriak denentzat zabalik.
- \*Funikularraren ondoko patinatzeoko pista atontzea.
- \*Funikularraren erabilpena bultzatzea.
- \*Artxanda gida turistikoan sartzea.

### MALLONAKO BEDAR ARTIFIZIALEZKO ZELAIK JOKORAKO PREST

Abuztuaren hasi ziren obrak amaitutakoan abenduaren 21ean Bilboko alkate Iñaki Azkunak eta EAeko Futbol Federazioko lehendakari Laurentzi Ganak Mallonako futbol zelai berria zabaldu zuten. Bedar artifizialezko zelai honen atontze lanek 67 milioi pezeta eskatu dute, fase bitan banatuta. Hemendik aurrera bertan entrenatu eta oltatzen diren ehundaka ume eta gazteentzat kirola errazago izan dadila. Akaso hortik Txetxu Rojo barri bat sortuko ete da!


Iñigo Azkona argazkia.



### SANTUTXURAKO ESKAILARA MEKANIKOAK ESKATU DITUZTE

Santutxuko auzo elkarteak Zabalbide eta Karmelo kaleen arteko aldea salbatzeko eskailera mekanikoak jartzeko eskatuko dio Bilboko Udalari. Auzoan aldapa latzak dagoz baina gaur egun metroak zelan edo halan zeozer bigundu du arazoa. "Baina Karmeloko irteeratik ateratzen direnek ezgilara zati luze bat dute zain, sarritan metroaren igogailua hondatuta edo gainezka dagoelako", argudiatzen dute auzo elkarteak. Inguru horretan jende asko bizi dela kontutan hartuta, irtenbiderik egokiena ezgilara mekanikoak ipintzea izan

daitekeela uste dute, "Basaurin eta beste herri batzutan egin duten moduan". Basaurin Basozelai auzora igoteko ezgilara mekanikoak ezarri zituen Udalak. Karmeloko ez eze, Iturribide eta Zabalbide arteko maila zatian be beste horrenbeste eskatu du auzo elkarteak. "Oinez kargatuta datozenentzat -erosketak, umeak, adineko pertsonak- irtenbide ona izan liteke eta oraingo bide nekeza ekidin liteke", diote. Auzo Elkarteak proposamenok Bilboko Udaleko Hiri-gintza sailaren aurrean aurkeztuko ditu.



# ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org



## IGOR ELORTZA IRABAZLE ETA ARKAITZ ESTIBALLES SORPRESA BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAN

Abenduaren 17an Euskalduna jauregian bi milatik gora entzuleren aurrean Igor Elortza durangarrak Bizkaiko bertsolarien txapela jantzi zuen, bigarren aldiz jarraian. Finalisten artean Bilboaldeko txapelduna zegoen, Arkaitz Estiballes, eta lana polito bete ostean lehenengo lauen artean sartu zen ezusteko galanta emanez.

Sarrerak egun batzuk lehenagotik agortuta zeudela egin zen abenduaren 17an Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa'2000ko finala. Giro ederrean, bi urtean behin errepikatzen den lehiaketa honetako finalisten artean azken edizioetan ohizko bihurtu diren izenez gain nobedade bi agertu ziren: Fredi Paia algortarra eta Arkaitz Estiballes galdakaotarra. Gainerakoak, Juanjo Respaldiza lako "betèranoak" -36 urtekin zaharrena berau-, Oihane Enbeita abizeneko sagari goi mailako bertsolaritzan segida ematen diona eta azkenaldion Bizkaian nagusi diren izenak: Iratxe Ibarra markinarra, Haritz Lopategi muxikarra, Igor Elortza eta Unai Iturriaga durangarrak. Lehia polita jokatu ostean, txapela Igor Elortza eta Haritz Lopategiren artean erabaki zen kartzelako gaien. Lopategik betiko lez seguru eta sendo, lan ona egin zuen, baina Elortzak 'Euskal Herrira bakea heldu da' gaiari hiru bertsotan emandako erantzun borobilak garaipena bere aldera eraman zuen.

### ESTIBALLES SORPRESA

Arkaitz Estiballes, bere aldetik, inongo presiorik gabe jardun izana eskertu zuen lan txukuna egiteko moduan egon baitzuen horrelako trantze latzean. Bere lehenengo finala zen Santutxuko Bertso Eskolarekin aritzen den gazte honentzat. Finalerako bidean Bilboaldeko txapeldun atera zen eta gero eliminatoriak eta finalurrekoak gainditu zituen.

Finalean bertsolari guztiek bi orduz jardun ostean lauk



Arkaitz Estiballes

baino ez zuten aurrera egin. Horien artean egon zen Arkaitz Estiballes, Igor Elortza, Haritz Lopategi eta Unai Iturriagagaz batera. Luxuzko konpainia, duda barik, lehenengo finala jokatzen duen batentzat. Horrela segituta ez da azkena izango!

## KONTSUMITZAILEEI INFORMAZIOA BARRUTIETAN

2001ko otsailaren 9a arte KIUB edo Kontsumitzailea Informatzeko Udal Bulegoak auzo ezberdinetako barrutietara zabalduko dira. KIUB hauek udal barrutietan burutuko dituzten funtzioak honakoak izango dira: kontsumo gaiei buruzko kontsultei kasu egin eta informazioa eskaini, zerbitzuen erabilpenean eta ondasunen erosketan kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak nola defendatu behar diren informatu, kexak, salaketak eta eskakizunak nola aurkeztu eta dagokien erakunde edota organismoei nola igorri behar diren informatu eta kontsumo gaiekin harremana

duen beste zentro publiko edo pribatuaren funtzio nagusienetaz eta helbideetatik ohartarazi. Mahatserriari dagokionez honako ordutegietan banatzen dira ordutegiak:

Uribarriko Udalgia (Iturriondo plaza 3-4): ostegunetan, goizeko 10etatik eguerdiko ordu batak arte.

Otxarkoaga/Txurdinaga (Txomin Garat Etorbidea 12-18): ostegunetan, goizeko 10etatik eguerdiko ordu batak arte.


Begoña (Txurdinagako kiroldegiaren alboan): asteazkenetan, goizeko 10etatik eguerdiko ordu batak arte.

euskarazko gabon kantak ez ziren horregaitik agortu. Resurrección María Azkuek 1916an argitaratutako "Cancionero Vasco" osatzeko batu zuen herri folklore bilduma erraldoian, oharrez betetako bost koadernotan, badago egon Bilbon batu ei zuen gabon kanta bat.

"Bilbao" izenaren

azpian idatzi zuen bere lan koadernoan behintzat. Tradizioa ez zen 1833an hil, beraz. Hona Azkuek bildu baina argitara eman ez zuen abesti hori:

Goazan Belenera  
itxi guztiori



Emoteko alabantzak  
munduko Jaunari  
Arima aurkiturik  
guztiz alegrian  
Mendian beruntz doaz  
poz-ozik guztia-ak

## "Hator, hator" gabon kanta Durangotik heldu zen

Gaur egun gure artean gehien entzuten den gabon kanta "Hator, hator, mutil etxera..." izango da, seguru asko. Haren bertsoen samurrak eta haren doinuaren eztiak oles egiteko aroa -Olentzarogozotu egiten digu. Beste kanta batzuekin ez bezala, "Hator, hator" abestia nondik etorri jakin jakiterik badugu, zorionez.

"Hator, hator" gabon kanta orain dela berrehunen bat urte jaio zen. Egileak, orduan oso famatuak ziren anai bi, Durangoko plateruak. Zidarginok euren behargintzan ez eze bertso paperak argitaratzen eta euskal dantzetan jardun ohi zuten. Alor biotan euren itzala Durangaldetik kanpora zabaldu zen. De la Fuente anaiak, aita burgostarraren eta ama gasteiztarraren semeak, hainbat urtez ibili

ziren zereginotan XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren lehenengo hamarkadetan. Juan Kruz (1760-1831) ei zen koplagilea Antonio (1758-1834) musika paratzeaz arduratzen zen bitartean.

Kantu famatu askoren egile izan baziren ere, gure artera lerdenean ailega dena "Hator, hator" dugu. Egia da nahikoa aldatuta dagoela, baina jatorrizkoaren pasarte asko mantendu ditu. XIX. mendearen amaieran Resurrección María Azkuek Otxandion entzun zuen eta bere Cancionero Vasco famatuan sartu zuen. Geroztik, Euskal Herriko bazter guztietako Gabonetan ezin falta. Gai honen gainean datu gehiago nahi duenak jo beza Antton Mari Aldekoa-Otalorak 1984ean argitaratutako "Durangoko plateruak" liburura

## Bazkide txartela

Izen deiturak: \_\_\_\_\_ ENA zenbakia: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_ Posta kodea: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_ Lanbidea: \_\_\_\_\_ Jaioteguna: \_\_\_\_\_

ASAPALA  
KULTUR ELKARTEA

Iturriaga 55 1 Ezkerra 48004 Bilbo  
Telefonoa: 94.47354.48  
E-posta: asapala@euskalnet.net

Partehartze mota:

Bazkide soila   
 Ekintza jakinetan laguntzaile   
 Lantaldeko partaidea

Ordainketa:

Kontu korrante bidez   
 Asapalaren kontuan   
 3035 0071 6 071 105864 2

Kuota korrante bidez

500 pta  
 1000 pta  
 2000 pta  
 pta



# GORA BEGIRA

Otxarkoaga futbol taldea mailaz igotzeko ahaleginean dihardu aurten

**Testoa: Unai Cuevas**  
**Argazkiak: Iñigo Azkona**

Club Deportivo Otxarkoaga hirurogeigarren hamarkadaren bukaera aldera sortu zen. Bere historia bi maila ezberdinen artean banatzen da: lehenengo eta bigarren maila erregionala. Bere patua igogailu taldea izatearena izan da urte askotan eta iaz lehenengo maila erregionalean aritu ondoren, aurten bigarren mailan jokatzen ari da Mahatserriko futbol talde hau.

Bigarren mailatik lehenengo mailara izandako igoera baten ondorioz txapeldunen arteko fase baten duten titulurik garrantzitsuena lortu zuten, Bizkaiko txapeldunarena, alegia. Aurtengo denboraldian, taldea indartzeko asmoz, Bermeoko futbol taldeko hiru jokalaririk eta Abusuko beste bi jokalaririk fitxatu dituzte. Dena den, Oskar Vian taldeko presidente ordeak aipatzen duen moduan "aurreko denboraldiko blokea mantentzen saiatu gara". Jokalari berri hauen inkorporazioari entrenatzaile berria ere gehitu behar zaio. Aurten taldea zuzentzen duen gizona, Jabi Requero, Abusuko talde jubeniletik datorren entrenatzailea da.

## MULTZO GAZTEA

Orotara, lehenengo taldea 20 jokalaririk osatzen dute eta taldea nahiko gaztea dela esan daiteke, "jokalariren batez besteko adina 25 urtekoa da". Baina lehenengo taldeaz gain, Otxarkoagak baditu beste bost talde gehiago ere: jubenil talde bat, kadete mailako bi eta infantileko beste bi. Honela, talde guztietako futbolariak kontutan harturik kopurua 120 jokalaritara heltzen da. Bazkide kopuruari heldurik, 350 inguru direla esan beharra dago. "Gure helburu nagusia erregionaleko lehen mailara igotzea da", aitoritzen du Otxarkoagako taldeko ordezkariak eta momentuz bide onetik dabilta. Ligan, lehenengoko postuetan aurkitzen dira, hortaz, baikor izateko moduko denboraldia burutzen ari dira. Lehen postuan dagoen

## SAILKAPENA BALIO DUEN GOLA

Oskar Tabuenka Otxarkoagako jokalaririk sartutako gol bati esker, Granada taldeak errege kopako hurrengo kan-



Lehen maila berreskuratzeko moduko denboraldia egiten ari da C.D. Otxarkoaga.

Casa Galicia taldearekin jokatu dute dagoeneko eta banako emaitza lortu zuten.

## LAGUN TALDE BAT


Taldeko zerbait goraiatzekotan aldageletan bizi den lagunaren arteko giroa azpimarratuko luke Vianek, "lagun talde bat osatzen dute eta euren arteko harremana oso ona da". Aipatzekoa da ere, aurten heldutako jokalaririk berriak ere berehala elkar ulertu direla. Oro har, "jokalaririk, entrenatzaile eta zuzendaritzaren artean dagoen harremana paregabea da".

C.D. Otxarkoagak, astearte, ostegun eta ostiraletan Ibarusiko futbol zelai berrian entrenatzen du. Etxeko gisa aritzen diren norgehiagoketan ere belar artifizialezko zelai honetan jokatzen du. Hori bai, partiduak ikusi ahal izateko, leihatilatik pasatu eta 600 pezeta ordaindu behar dira. Dena den, zaleak pozik ordaintzen dute, diru honekin taldea aurrera ateratzen laguntzen baitute. Arlo ekonomikoarekin jarraituz, iazko denboraldian 6 milioiko aurrekontua izan ondoren, aurten ere ez da zifra horretatik oso urruti ibiliko, "dena den lortzen ditugun emaitzen arabera izaten da" azaltzen du presidente ordeak. Eta emaitza horiek ahalik eta onenak izan daitezzen opa diegu.

poraketarako txartela lortu zuen. Bigarren B mailan dagoen Tabuenkaren egungo taldeak, bigarren A mailan ondo sailkatuak doan Huelvako Recreativori 1 eta 0 irabazi zion eta honen ondorioz final hamaseietan izango da.

## MURUBE (1.128 metro)

Larraonatik



Gasteizetik Iruñerako errepide nagusitik Agurainera heltzean Opa-kua herri eta mendaterantz abiatuko gara. Mendatea igo ondoren bidegurutze bat dago kilometro batetara. Bertan "Valle de Arana", "Larraona" eta abar dioden kartela dago. Larraonarantz joango gara eta laster helduko gara.

Larraonara ailegatzean, iturria eta uhaska dagoen toki ondoan utziko ditugu autoak (A). Iturri alboan dauden bi etxeren tartean irteten den kaletik gorantz hasiko gara. Ate handi bat zeharkatuko dugu, ezkerrean dagoen bideari jaramonik egin barik. Lehenengo zuzen eta gero biragune batzuk eginez goialdean dagoen beste burdinazko atearaino joango gara. Bidean beste uhaska bat ikusiko dugu. Ateitik igaro eta Larraonako landa izeneko tokira helduko gara. Bertan ezkerrean dagoen etxola bat eta eskumaldean beste txabola batzuk, erdian Benito Deunaren basiliza dagoela. (B) Hemendik ezkerretara joanez landa barrenean ikusten den azken etxolaraino helduko gara. Bertan harresi luze batekin egingo dugu topo eta beste burdinazko ate bat pasatu beharko dugu (C). Honaino Opa-kua mendatetik datorren pista autoak heldu izaten dira.

Pista hau hartuz hirurehun metroara ezker bazterrean sarrera antzeko bat dago bi Kairn tartean. Hemendik sartuko gara pagadi barrena pista zahar batetik beti gorantz harkaitz handi batekin topo egin arte. Haitz honen tontorrak "Islube" du izena eta bera gaintzeko burdinazko eskailera dago jarrita. Hemendik lehenago aipatu dugun harresi luzea eta bere ondoan dagoen burdin harria ikus ditzakegu. Ezin ditugu galdu, norabide onena eskaintzen digutelako. Harkaitzpetik eskumalderantz joango gara, lehenengo beherantz, gorantz gero, azken zatia bidezidorretik eginaz "Murube" (1.128 metro) tontorra lortu arte. Ez ahaztu inoiz burdin harria.


Txartel kutxa harri handi batzuen gainean dago, base-lizaren antza duenak. Ondoa burdinazko piramidea

dago, Nafarroa eta Arabako muga adierazten duena.

Igoera osoa ordu eta erdi. Murube tontorretik hirurehun bat metroara, trikuharri txiki bat dago harresi ondoan.

Bidean zuhaitz mota hauek aurkitu genituen:  
-800 metro: Urritzak, pagoak, astigarrak, ametzak.  
-900 metro: Ametzak, elorri zuriak, ipuruak.  
-1.080 metro: Serbalak.





**Iñaki Hervada:**  
"Pertsona guztiei  
poesian saia  
daitezela esango  
nieke, batez ere  
jende gazteari"

Olerkari mahatsorriak  
lehiaketa bat irabazi  
zuen hamabost  
urteko bere lanaren  
selekzio batekin

Testua: Arrate Diez.  
Argazkiak: Xabi Herrera.

Gure hiriko kale kantoietan bada oraindik ere poesiarako bazterrik. Horietako batean Iñaki Hervada mahatsorri euskaltzale eta olerkaria bizi da. Gazte gaztetatik bere sentimenduak poemen bitartez azalarazten hasi zenetik apurka apurka bere abildade hori garatuz joan da. Idatzi dituen poemen artean batzuk aukeratu zituen iaz, Derioko Udalak antolatutako olerki lehiaketan aurkeztu eta irabazle atera zen. Bere burua autodidaktatzat jotzen duen santutxutar honek poematan maitasunezko gaiak lantzen ditu batez ere, eta jendeak bere barneko pentsamenduak poemen bidez azalaraztea mesedegarria dela uste du.

**Nondik datorkizu poemak idazteko abilezia?**  
Norberari berez datorkion abildadea da, nire ustez. Beste batzuk iturgintzan zein albaitaritzarako abildadea duten bitartean bik poemak idazteari ekiten diot. Egia esan, nire kabuz hasi nintzen poemak idazten inon-

go metrikarik eta errimarik gabe. Ez naiz poemagintzan oso aditua, autodidakta hutsa naiz.

**Zertan duzu inspirazioa poemak idazterakoan?**  
Gehien bat, maitasunean, adiskidetasunean eta elkartasunean inspiratzen naiz.

**Noiztik zabilta poesia idazten?**  
Nerabezaroan hasi nintzen poemak idazten, beti maite-tsu ibiltzen den pertsona horietakoa naiz, beraz, amodiozko poemak idazten ditut.

**Zein motako poesia da zuk egiten duzuna?**  
Orokorrean, nire ustez, ez da oso poesia kultura. Nik ditudan pentsamenduetatik datozkidan poemak dira, neurri gabekoak eta ez da goitik behera landuta dagoen poesia motakoa. Lortu nahi dudana, batez ere, nire barneko sentimenduak adieraztea da.

**Orain urtebete Derioko Udalak euskarazko olerki sailean saria emateak animatu al zaitu bestelako lehiaketetan parte hartzeko?**

Momentu honetan "impasse" batean nago, Derioko Udalak saritutako lana aurreko hamabost urtetako lanen bilduma izan zen. Urte askotan idatzitako poemen artean selekzio bat egin nuen eta hura izan zen aurkeztutakoa. Printzipioz, aurrerantzean ez dut gehiagotan aurkeztutako asmorik poemak lantzen ikasten ez dudan arte.

**Zer suposatu zuen zuretzat saria irabaztea?**  
Batetik, anekdota bat izan da niretzat, eta bestetik, nire lanen errekonozimendua izan da. Poztu egin nintzen.

**Zein poeta duzu gogokoena?**  
Asko dira nire poeta gogokoena, baina aipatu beharra badaukat, zenbait poeta euskaldun esango nuke. Lehenengo, Gabriel Aresti eta denok irakurri ditugun bere poema liburuak: "Harri eta Herri", "Maldan Behera", "Euskal Harria" eta abar. Baita Telesforo Monzónen kanta eta abesti batzuk ere. Hala ere, nik ezagutu dudan olerkaririk finena aita Santi Onaindia zena izan da. Zornotzako Larreako komentuko karmeldarra, olerkari eta pertsona paregabea. 1996ko otsailaren 11an zendu zen, 86 urte zituela. Bera izan zen nire gidaria olerkigintzan, dudarik gabe. Bere lanik aipagarriena: "Mila olerki eder".

**Bestelako biderik jorratu duzu literaturan?**  
Prosarik ez dut idatzi. Baina zenbait itzulpen eginak ditut.

**Zure iritziz, zein eginkizun du poesiak gaurko gizartearen?**  
Norberak bere barneko ideia eta sentimenduak azalera ekartzeko modu polita den heinean, gaurko gizartearen praktikatu beharko luke. Nik pertsona guztiei saia daitezela esango nieke, batez ere, gazte jendeari.



**INMOBILIARIA**  
**Gelaya**  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Tfnoa: 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**Bikoitz**  
ARROPAK ★  
ZILARRA ☾  
OPARIAK ★  
Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

**ZURE PUBLIZITATEA HEMEN**  
**94 473 54 48**

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**AV**  
Biktimganako Laguntza Zerbitzua  
Servicio de Asistencia a la Víctima

*Zeurekin gaude*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lanikidetzarako Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia





# horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Buruan duzun plan hori aurrera ateratzeko, ahalegin osoz saiatu beharko zara. Lasai, lagunen laguntza beti izango duzu eta. Kontuz osasunarekin!
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Esaten dizuna egia baldin bada lasai asko egon zaitezke. Ahaztu paranoiak eta ez ezazu konfidantza galdu berarengan. Tipo ona dela ematen baitu!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Gabonak direla eta etxera bueltatu zara. Luzarorako ez bada ere aprobeztatu egonaldia. Gauzak itxi zenituen moduan aurkitu dituzu? Aldaketaren bat egon bada one-rako izatea espero dugu,...
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra. Atera berri zaizun lan eskaintza hori ezin duzu pasatzen utzi. Zure eskuan dagoen oro egin ezazu. Diru pixkat irabazteko aukera paregabea! Lagunen kontseiluak jarrai itzazu!
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. Nahiz eta urtean zehar ondo portatu ez, opariren bat edo beste jasotzeko aukera izango duzulakoan gaude. Gustatu ez zaizula? Pena bat, hurrengoan izango da.
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Urtea ondo hasi nahi baduzu kontrola zaituz Gabonza-harrean! Txanpaina edan ezazu baina kontrol apur batekin behintzat, ...nahiz eta hurrengo egunean buruko mina izan, gaueko "barre lehergailua" izango zara!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra. Superstizio kontuak gustatzen zaizkizu, ezta? 31an lenteria gorria jantziko duzu be bai? Lasai ez da inor konturatuko.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra. Gabonetako oporrak ondo pasatzeko ez ezik etxean laguntzeko, familiarekin egoteko eta ikasteko be badira. Badakizu etxea usaindu gutxienez!
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Eguberritako jaiak badatoz eta zure urtebetetze ospakizuna oraindik gainditu ezinik. Jai batetik atera eta bestean sartu. Bai bizitza ona zurea! Gero arazo ekonomikoak dituzula esango duzu,...
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Zure epe edo garai astrologikoan sartu gara. Gauzak gertatzeko unea, badakizu. Baina onak zein ez hain onak izan daitezke, beraz argi ibili!
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Garai onean zaude. Zorionak! luzarorako jarraituko duela ematen baitu. Ondo dirudizu? Ba badakizu, saia zaituz aprobeztatzen eta zure partetik ahal duzun guztia jartzen.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Zure arazo larrienak liburuekin izango dira. Lagunekin, diruarekin eta etxean giro ona egongo baita. Beraz, hau jakinda gogorrago saia zaituz eta zorte on azterketetan!

# agenda

## URTARRILAK 3:

Sorgintxulon, umeentzako zikloa: "Haran sorginduaren bila".

## URTARRILAK 5:

Sorgintxulon, umeentzako zikloa: "Pernando amezketarra".

## URTARRILAK 5:

Sorgintxuloren bigarren urteurren jaiak: erakusketak, poteoa, kalejira eta kontzertua.

## URTARRILAK 6:

Santutxun, "Sei izar" krossa. Izena emateko urtarrilaren 3-4-5 Santutxuko auzo elkartearen lokalean iluntzeko zortzietatik bederatzietara. Bestela, lasterketa egunean bertan, hasi baino ordubete lehenagora arte.

## URTARRILAK 21:

Sorgintxulon zinea: laburmetraia eta euskarazko luzemetraia.

## URTARRILAK 25:

Herrira plataformaren manifestazioa. Ostein, kartzelari buruzko antzerkia Sorgintxulon.

## OTSAILAREN 12RA ARTE:

Euskal Museoan "Bilbao 1860-1895" argazki erakusketa.

